

Noaia!!



Aginagako Eskola Txikia,
egoera larrian



Xabier Mikel Errekondo, alkate berria

“Aldaketa eskatu du herriak”

Elkarretaratzeak Michelinen

Lan hitzarmen duin bat aldarrikatzeko mobilizazioetan dabilta Michelin go langileak. Langileen ordezkariak aditzera eman dutenez, Michelinen "Enpresa Batzordearen eskakizunei entzungor egiten jarraitzen du eta ondorioz lehendik zetorren negoziaketaren blokeo egoera areagotu egin da". Egoera honen aurrean, Enpresa Batzordeak urrats bat gehiago ematea erabaki du. Azken asteotan, elkarretaratzeak egiten aritu dira Michelin lantegiaren atarian. Hirugarren elkarretaratzea ostegun honetan egingo dute, hilak 21, goiz eta arratsaldeko txandaren sarrera irteeretan (13:15etik 13:50era eta 14:00etatik 14:15era).



Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustín Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonbieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

SAN JOAN SUA PIZTEKO GARAIA _____ **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN _____ **6. OR.**

AGINAGAKO ESKOLA TXIKIA, LARRI _____ **8. OR.**

UDALETXEAREN OSAKETA _____ **10. OR.**

OPORRETARAKO PROPOSAMENAK _____ **12. OR.**

IZERDI PATSETAN _____ **16. OR.**

BURUNTZALDEKO KIROLDEGIAK _____ **18. OR.**



Usurbilgo Udaia



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



JOXE PIÑAS

Mendi irteera eta gehiago

Ba zen behin mendi irteera bat, Andatza Elkartek antolatua zuena, Alkiza-Usurbil ibilbidea... Goizeko 7etan autobusa beteta zauke(n)agu Usurbildik Alkizara juteko. Behin Alkizara iritsi ta beste hiru lagunekin plaza ikustera goaztin/k. Plazatik bueltan besteak mendi martxa iten hasi ditekela ikusten di(n)agu.

- Joder, jendeak presa zitxakan edo... Azkenak gaituk!

Andatza Elkarteko batek:

- Aizue, plastikoak biltzen lagunduko al diguzue?

- Bai noski (engantxada).

Tropelaren azken lekuetatik anekdotak kontu kontari goazen bitartean ibilbideaz gozatzen ari gaitun/k. Ernioko magaleraino paisaia zoragarria den/k, lasaitasuna nagusi, auskaldean lanbroa altxatzen dihoan heinean eguna nola esnatzen doan sentitzen di(n)agu. Zoragarriya!

Eguerdiya pasa ta gauzak aldatzen ditun/k. Jende gehio ai gaitun/k topatzen, ta bi motorista behin baina gehiagotan: guri aurreratzen ziguten/k ta handik 50 metrotara geatu iten ditun/k, beraien parera iritsi ta berriz 50 metro aurreago juten ditun/k... horrela ez zeki(n)at zenbat aldiz, nunbait motua izorrraута ditun/k... ta kasualitatez usurbildarrak ditun/k (hau zorte txarra bikoitza... beraientzat).

Beno, ba behingoz motoristak eta motuen zarataz desegitea lortu di(n)agu.

Eguna argitsu zegon/k, baina malda txiki bat igotzen ai gaitukentian berriz lanbroa sartzen den/k, ta gu:

- Uy, ze bitxia ezta! Ipuin bateko irudia zirudik.

Ta bapatian, lanbro tartean ta gure aurrean figura altu bat irudikatzen hasten den/k.

- Aiba Dios, zer dek hori!

Ari den/n gerturatzen ta... Dios ez den/k izango baina gurutzea bai: Prozesio! Seguru nitxon/k lauei esaldi bera burura etorri zitzaigula: "lanbro tartean etorri zen argitasuna emateko". Bide bazterrera jarrita ta elkarri begiratuta, errespetu handiz pasu uzten zio(n)agu ipuin batean ez gatzikela ziurtatzeko.

Aurrera goaztin/k gai "dibinotaz" eta "terrenaletaz" hitz egingen:

- Joder, ikusi al dek? Nik jendia ez diat ulertzen. Mendira etorri, pixa in ta papera hortikan botata utzi!

- Bai la ostiya... kondoia bezala! Mementoan harrapatuko banizkian...!

Motxilak plastikoz beteta Usurbila iritsi gaitun/k, birziklatzera botatzen di(n)agu.

Zenbat era ezberdin dauden mendian ibiltzeko: indibidualak edo kolektiboak, errespetuzkoak edo errespetu gabekoak...

Zenbat motibazio eta portaera ezberdin dauden gizartean.

Ba zen behin mendi irteera eta gehiago.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Joxe Piñas - Unai Agirre

Ika-mika !

Xabier Mikel alkateari eta bere taldekideei

Usurbil Bizirik Erraustegiaren aurka dagoen Usurbilgo herritar batzuk osatutako talde bat gara. Gure helburu bakarra, Gipuzkoan inposatu nahi diguten errauste planta inon ez egitea da eta horren orde, Gipuzkoako Erraustegien kontrako Koordinadorak aurkeztutako alternatibak jartzen ditugu mahai gainean.

Denbora asko daramagu arazo honekin hara eta hona eta azken txanpan, usurbildarrei eta zubitarrei tokatu zaigu Gipuzkoako Foru Aldundiak herritarrekin kontsultatu gabe hartutako erabakia.

Orain arteko harremanak Usurbilgo udalarekin ez dira onak izan nahiz eta udalak ere errauste planta Usurbilen egitea nahi ez duela adierazi. Garaiak aldatu egin dira ordea eta gure nahia litzateke orain hartu berri duzuen kargudunekin harremanak estutzea eta ekimenetan bat egitea. Pasa den hilabeteetan aurkeztu duzuen herri programan, zuen helburretako bat errauste plantaren aurka egitea izango dela adierazi duzue, beraz eta helburu berdinak ditugula ikusirik, elkarlanerako prest gaudela adierazi nahi dizuegu.

Lan asko dago egiteko eta erronka ez da erraza baina, lanerako prest gaude eta herritarrekin elkarlana bultzatu behar delakoan gaude. Ideiak ere baditugu eta denen artean egitea errazago litzateke: materia organikoaren bilketa (etxez etxekoa edo laugarren kontenedorea jarrita), konpostaguneak auzo eta gune ezberdinetan, berziklatzearen inguruko kanpainak, herri galdeketa...

Elkarren berri izango dugulakoan.

Usurbil Bizirik

San Joan sua pizteko garaia

Euskal Herriko jai nagusiak argitasun handieneko egunetan izaten dira. Udako solstizio inguruko festak dira Kalezarrekoak, hain zuzen ere San Joan Bataiatzailearen jaiarekin identifikatuta heltzen zaizkigunak.

Larunbatean piztuko da San Joan sua. Gaueko 22:00etan izango da hori. Baina egunean zehar gaztetxoak izango dira protagonista nagusiak.

Igandean amaituko dira festak. Meza nagusia eta gero, Soka Dantza hasiko da eguerdiko 13:00ean. Sardina eta sagardo dastatzearekin akabo San Joanak!



Kalezarren, San Joanak azken txanpan

Ekainak 22, ostirala

18:00etan buruhandiak
19:30ean auzotarren arteko herri kirol lehia
23:30ean Trikidantzekin dantzaldia

Ekainak 23, larunbata

10:00etan ume krosa
12:00etan jolasak

15:30ean San Joan eskearen irteera
16:30ean tailerrak
18:30ean buruhandiak
19:00etan Dj Larrañagaren saioa
22:00etan San Joan sua

Ekainak 24, igandea

11:00etan meza nagusia
13:00etan soka-dantza

18:00etan buruhandiak

19:00 sardina eta sagardo dastatzea eta hau alaitzeko Jexuxen Jazpana, jaietamaiera emanaz.

Oharra: Jai Batzordea ez da jaietan gerta daitezkeen istripu edo ezbeharrez arduratuko.

Ika-mika

Epaitu al daiteke frogarik gabe? Ontzat eman al daiteke torturapean egindako deklaraziorik? Izan al daiteke ETAkidea jakin gabe? Komunikabideak ixtea demokratikoa al da? Helburu politiko, sozialen, kulturalen, eta abarren alde antolatzea, delitua al da? "Terrorista" batek erabil al ditzake bere jardueran soilik bake bideak? Disidentzia ETaren parte al da?

Bederatzi urte pasa dira 18/98+ makroprozesuen lehenengoari (Egin egunkariaren itxiera) hasiera eman zitzaionetik eta eskubide zibil eta politikoen urraketak bere horretan dirau. Hiru hilabete pasatxo dira 18/98 epaiketaren ahozko bista amaitu zenetik. Sententziaren zain gauden honetan, eskertu beharrekoa da Euskal Herrian eta beste herrialdetan ideologi askotariko pertsonengandik jaso dugun

18/98+ berriro ez!

elkartasun uholdea. Orain urrats berriak egitera gonbidatu nahi zaituztegu.

Epaiketa honen ibilbide kafkianoak argi erakutsi du ezin dela epai bidezkorik eman, auziperatu guztien erabateko absolutioa ez bada. Epaiketan zehar ikusi ditugun jarduera sozio-politiko zilegiek zigorra merezi baldin badute, pertsona horiek guztiok izango gara errudun, gure eskubide zibil eta politikoak egikaritu izanagatik errudun.

Epaiketak argi erakutsi du jazarpen politikoan murgildu dela Espainiako Justizia, salbuespeneko justizian oinarritu dela 18/98 eta honekin lotuta dauden prozedura politiko guztiak.

Horregatik, bakea eta justiziari trabak jartzen ari zaizkien guztiak gaindi ditzagun: Ideia politiko bidezkoak jazartzen eta zigortzen dituzten botere publikoak gain-

ditzeko garaia da; euskal herritarrak kriminalizatzen dituen botere judiziala gainditzeko garaia da, eta, azkenik, guztion eskubide guztietan oinarritutako gatazka-ren konponbide justua oztopatu nahi dutenak gainditzeko garaia da. Ezin da makro-epaiketa gehiagorik onartu. Guztion artean epaiketen katea eten egin behar dugu. Eta, bide batez gehiegikeria zigortzaile hauen arduradunen erantzukizuna exijitu behar dugu. Berriro ez!

18/98+ Lan Taldea

Oharra: Auzipetuek itxialdia egingo dute ekainaren 17tik 22ra Gernikan. Ekainaren 22an, ostirala, 12.30ean konzentrazioa Gernikako Merkurioren. 19.30ean ekitaldi nagusia eta itxialdiaren amaiera. Ondoren, manifestazioa Gernikako Merkatu plazan.

TXOKOALDE

KOLDO HUEGUN

Trumoi eta tximistak



Trumoi, laino, tximista eta tanto potoloen artetik kaixo auzotarrok!

Uda ez dakit nolakoa suertatuko zaigun baina, udaberria guztiz bustia jasan dugula nork ukatu. Arto babarrunak inoiz baino beranduago erein, frutarbolak loreari eutsi ezinik, belarrak kokoteraino, baina aurrera.

Trumoi eta tximista artean doa baita herri honen ibile-ra. Nahiz eta Usurbilen momentuz, eguzki printza batzuk giroa goxatu Euskal Herriko eguraldi politikoa udaberri hau bezain beltza eta trumoitsua ageri zaigu.

Pasa den larunbatean, udal berriaren osaketa zela eta, jende ugari bildu ginen, behar bada, azken lau urte haue-tan zapaldua izan den hitza, Usurbilgo herriaren gehien-goaren hitza berma zedin. Eta hala izan zen, batzuk sekula bereak izan ez diren aulkiak uzteko penetan, besteak legeak hala aginduta konstituzioari promes eginez eta besteren bat txikle eta musika artean galduta.

Xabier Mikel alkate berriak esan zuen bezala, udal ezkertiar eta abertzalea osatzea lortu da, ea guztion artean Usurbilgo adibidea Euskal Herri osora zabaltzen dugun.

KALEBERRI

ENEKO HARREGUY

Erremediorik gabe, konektatuta



Beti ikastetxean sartuta gaudela negar egiten dute ikasleek. Ez zaie arrazoirik falta. Hiruhilabetea behin egiten dugu txangoren bat. Hori bai, erabakitzen dugun txangoa erabakitzen dugula, ez ditugu sekula konformatzen: eta ludikoa izaten da azkenekoa. Ez zait gustatzen helburua, besterik gabe, ondo pasatzea duen irtenaldi bat, gainerakoetan sufrizera doazen inpresioa ematen baitu. Eta jakin behar dute, asmo pedagogikoa duten irtenaldietan ere ederki asko ibil daitezela.

Ez dakit zer geografia ikasi duten. Askok dakite. Afrikako ibai guztien izenak esango dizkizute, baina autobusean sartu eta Donostiatik atera bezain laster galduta daude. Baina ez pentsa aurkitzen hasteko irrikirik sortzen zaienik. Autobusean sartu eta oso eroso da guretzat. Denak doaz eserita eta ixil-ixilik. Apenas elkarriketaren bat entzuten dugun. Apenas erakusten duten ikastetxetik atera direneko euforia hori. Non geratu dira El señor conductor... eta antzekoak?

Behin iritsita, sekula ibili gabeko lekuetatik daramatzagu. Kasu honetan ez da Bretxako espaloia zanpatuko dutena. Eta paperezko zapiak atera dituzte oinetakoak zikinduko zaizkien beldur, garbitzen hasteko. Ez dut inor zuhaitzetara begira ikusten, ez lore baten xehetasunetan erreparatzen, ez belar-ziri bat ahoan dastatzen.

KALEZAR

MAIDER MAKAZAGA

Giro ezin hobe

Argazkiek dena esaten dute. Giro paregabea sortu dute San Juan Jaietako lehen asteburuan parte hartu duten haur, gazte eta helduek.



ATXEGALDE

MARIA JESUS URBIETA

Bisitariak auzoan

Ekaina aurrera doa eta festak amets edituztela dabilta gazteak. Auzoan barrena dabilta buru belarri, aterik ate, trikitia lagun dutela auzotarrak animatzen festak berreskuratzen. Bejondeizuela eta ea den ondo ateratzen den.



Bestalde, festei hasiera emanez Kalezarren hasi dira dagoeneko San Juanak. Herriko festak ere badatoz eta guk Atxegalden astero somatzen ditugu danborradaren ensaiolak entzuten baititugu. Hor ari dira, gazte zein heldu eta danbor zein barrika.

Gaiatz aldatuz, beste kezka bat agertu nahi nuke tarte honetan. Auzoko zenbait espaloi arriskutsu geratzen dira euria egiten duenean. Jendeak maiz egitendu irrist eta kolpeak hartu beraz, arduradunei esan nahi diet kontuan izateko.

Bukatzeko aipatu auzoan bisitariak izan ditugula. Alperroburu kalean (Aldatz gainean) erleak izan ditugu bosgarren solairuko balkoian. Bi hiru egunetan izan ditugu eta ikusgarria izan da zenbat erle etorri diren, burrunba ere entzutekoa izan da. Azkenean erle zainek jarritako kajara bildu izan dituzte erleak.

SANTUENEA

ALEX TELLO

Karraren bidaia



Karrak oso gogokoak zituen Haitza (bere betidaniko bizitokia edo etxea) eta etxe-koen giro gorabeheratsua. Han, haitzean, ez zen sekula akitzen. Aitzitik eta tarteka, gustukoa zuen itsasertzean paseatzea.

Uda hasierako egun lainotu batetan, betidanik urrun ikusi izan zuen paisaia urrutiratu, dezente aldendu zen.

Nahigabeko jakin-nahiak eramana, bakarrik joan zitzailgun. Bakarrik eta agian, munduaren handitasunak oharkabean erakarrita.

Abenturazale hasiberria, leku ezezagunetatik zebilen aparteko aurkikunderik egin gabe. Hala, derrepentean, itzal itzel baten gorputza gainera zihoakiola sumatu zuenean, ikaraturik, fida ezinik, larriturik... ezkutatu zen. Haitzaren babesa galdu izanaz jabetuta, golkoa babestearren ezkutatu zen.

Gorderik eta erne, erasorako prest, ezkutuan denbora luzea eman zuen gero.

Karra irten zenerako, aspaldian aldendua zen bestea, oster. Iluntzerako haitzean zelakoan..., gaurdanik Karra ez da etxeratu.

Nola doakion imajinatuz, ahaideak esperoan ditu haren egiazko berrien zain.

AGINAGA

AITOR HELETA

Balorazio garaia

San Joanak iritsi dira, honekin batera Antxomolantxa Elkarteak antolatzen dituen ikastaroak bukatu egiten dira. Iritsi da balantzea egiteko ordua eta hurrengo kurtsoa preparatzekoa. Parte hartze handia egon da ikastaroetan, bai ume bai helduen partetik, asko izan dira egindako akatsak, baina hainbat gauza ondo ere egin ditugula uste dugu. Hala ere zuen ekarpenak onak izango dira ekintza aukera zabalagoa izateko. Jakin ezazue



ostegunetan biltzen garela zinema zaharrean (ludotekan) edo bestela bota zuen proposamenak bertan dagoen buzoian.

Beste aldetik eta ohiturak berreskuratzeko asmoz San Joan bezperan Sekañoako goiko zelaian gaueko hamarretan sua piztuko dugu gure barruan dauzkagun kezka eta energia txar guztiak erretzeko eta energia berriei kargatzeko.



URDAIAGA

ALAZNE BEGIRISTAIN

Zaborrontziak



Azken bolada hontan asko hitz egin da erraustegia dela eta ez dela. Egia dena da, zabor asko sortzen dugula etxe guztietan. Guk gure etxean papera, kristala, plastikoak... banatzen ditugu baina hala ere zabor asko da pilatzen dena.

Nik uste, gaur egun, nahiko barneratua daukagula birziklatzea eta hau dela eta, arazotxo batekin aurkitzen gara gure auzoan: ez daukagu birziklatzeko basura ontzirik. Parkearen inguruan badaude zaborrontzi "normal" batzuk baina gainerantzean ez dugu ontzirik. Ez zait oso ondo iruditzen egia esan. Nik uste, gauzak ongi egiteko errezetasunak eman behar direla eta astero-astero kotxean kristalak, paperak etabar hartu eta Santuenera hauek ustutzero jeitsi beharra ez zait egokia iruditzen. Hau da daukagun egoera baina gustatuko litzaidake honen inguruan norbaitek erreflexio bat egitea.

ZUBIETA

XABIER ARREGI

Haur txokoak eta dantza-soka

Eskola sasoia amaitu da eta hemendik aurrera izango da festa bazterretan. Halakoxeak dira zubietarroi iritsi zaizkigun deialdiak.

Bata, Sanjoan gauerako. Ohi bezala, herri-afaria antolatu du pilota elkarteak, nahiz eta aurten, ezkontza bat dela tarteko, pilotari ez direnek hartuko duten afariaren ardura. Frontoi estalian da afaria, iluntzeko 9etan, baina lehendik izena eman behar da.

Santioak ere badatoz eta dantza-sokarako abisua da bigarrena. Hasi beharko dugu alpargatak urratzen! Dantzarako gogoak duenak, eta ikusi dugu dantzari franko badela inguru honetan, datoren larunbatean du hitzordua arratsaldeko 7etan frontoi estaliko lokalean. Eta hirugarren deialdia haur-txokoetarako da. Uztailean eta abuztuan antolatu nahi dira aurten ere, goizeko 9etatik 13etara. Izena emateko ohar bat utzi behar da udaletxeko buzoian (Alamandegin) ekainaren 26a baino lehen, eta ohar horretan garbi adierazi behar dira haurren izen-abizenak, jaioteguna eta harremanetarako telefonoa. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 635 751 340 telefonora.



Egoera larrian da Aginagako Eskola Txikia

Udalak ez badu herritzen, Delegaritzak itxi egingo duela diote gurasoek

Aginagako Eskola Txikiko guraso elkarteko kideak kezkatuta daude. “Aginagako eskola utzita dago zeharo”. Berrikuntza baten premia du. Eta hala ez bada, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Delegaritzak eskola itxi egingo duen beldur dira. Udal korporazio berriari eskaera argia egin nahi diote: berehala konpondu dezatela eskola. Bestela, irailan eskolarik gabe geratu daiteke Aginaga.

Urte hasieran hasi ziren aurreko udal gobernuarekin negoziatzen. “10 bilera baino gehiago egin eta gero, eskola berritua izango zela esan ziguten”, adierazi digute Guraso Elkarteko kideek.

Bilera horietan, udal ordezkariak eta Aginagako eskolako gurasoekin batera, Delegaritzako ordezkariak ere izan ziren. Eskola berritua izango zela, hitzez agindu zien Usurbilgo udalak. Baina orain konturatu dira ez dela Eskola Txikia berritzea ko diru partidariak udal aurrekontuetan. “Engainatuak izan gara. Hala sentitzen dugu. Orainxe konturatu baikara udalak ez zuela sikiera proiektu hau onartu, eta eskola berritzearen gastua ez zegoela aurrekontuetan jaso, inongo aurrekontutan jaso”, adierazi digu gurasoetako batek.

Baina eskola berritzearena ez da soilik Aginagako gurasoen eskaera. Delegaritzak argi esan baitu, eskola ez bada berritzen itxi egingo dutela. “Delegaritzak eskola mantentzearen alde dago baina udaletxeak bere parte jarri behar du. Udaletxeak ez badu eskola txukun jartzen itxi egin beharko da eskola. Gauzak horrela, udal korporazio berriari horixe eskatzen diogu, eskola berritu dezala. Gainera, euren programa elektoralean (EAE-ANVri zuzenduz) eskola berritua izango zela zioten”, diote NOAUA!rekin bildu diren gurasoek.

Matrikulazioak gora egin du

Bitxia da Aginagan gertatu dena. Matrikulazio kopurua handitu egin baita. 10 ikasle izan dira ikasturte honetan eta datorrenean 15 izan daitezke. Beraz, kasu honetan, arazoa ez da ume falta. Arazoa azpiegitura mailakoa da.



AGINAGAKO ESKOLA TXIKIAREN ATARIKOAK.

Eskolak ez dituela gutxieneko baldintzak betetzen.

GURASO ELKARTEKOAK

“Eskola berria agindu genuen matrikulazio kanpainen.

5 matrikula berri lortu ditugu, baina orain zer esango diegu?”

Martxoan egin zen matrikulazio kanpaina. Guraso Elkartekoek uste zuten datorren ikasturterako eskola berrituta egongo zela. Matrikulazioa egiteko argitaratu zen triptikoan, “goizetan zaintza jartzeko konpromisoa hartu genuen. Baita komedore berria jarri eta eskola berrituko zela ere. Ordurako, eskola berritua izango zela konfirmatu baitzigen Usurbilgo udalak. Are gehiago, leihoak, paretako koloreak, lurra, armairuak nola jarri... horrelako gauzetan ari ginen pentsatzen. Baina orain uste dugu udalak engainatu egin gaituela”, gurasoek hala esanda.

“Eskola utzita dago zeharo”

Antza denez, goitik beherako berrikuntza behar du Aginagako Eskola Txikiak. Begibistakoa omen da: “Delegaritzatik etorri direnak harrituta zeuden Aginagako eskolak duen egoeraren aurrean. Eskola utzita dago zeharo. Hezetasun handia dago”, diote gurasoek. Barruan ez ezik, berritze lanak fatxadan

ere egin behar direla adierazi digute. Eta berehala: “aurreko korporazioak ez zuen eskola berritu. Korporazio berriak egin dezala. Bestela, datorren ikasturtean eskola itxita egongo da. Delegaritzak ikusten badu ez dela ezer egiten, irailean eskolako ateak itxita izango ditugu”.

Haurrentzat eta gurasoentzat ez ezik, Aginagarentzat ere galera handia litzateke. Eskolarik gabe herri-giroa galduko luke Aginagak. Hori guztia dago jokoan.

Gero eta haur gehiago daude Aginagan

Aginagako Eskola Txikiak 10 Aume ditu gaur egun, 2 urtetik 12 urtera bitartekoak. Matrikulazio kanpainen, beste bost haur animatu dira. “Bapatean beste bost ume sartzea kristorena da guretzat. Eta hurrengo urtean beste hiru gehiago sartu daitezke”, diote Guraso Elkartekoek. Beti ere eskola berritzen bada. “Denei hori saldu diegu. Baina jendeak hau ikusten badu esango du, *nola ekarriko dut umea bona?*”. Gipuzkoan Eskola Txiki asko dago. Baina Aginagakoa bezalakoak gutxi. Gurasoen ustez, “gure eskola lotsatzekoa da. Igeldon kristorena dute. Elgetakoa ere, primerakoa da, eta baita besteak ere. Eta gu non gaude?”.

El Salvador laguntzeko kanpaina

Jaiki Gazte Taldeak hara bidaltzeko materiala biltzen hasi da

Etxebizitzari lotutako kanpaina amaitutzat jo ostean Jaikik kanpaina berri bat abiarazi du. Helburua, El Salvadorreko komunitate behartsu bati materiala helaraztea da.

1980-1992 urte arteko Gerra Zibila gainditu gabe daudenean, diotenez, beste guda baten atarian egon daitezke. Biztanleriaren %5ak irabazien %75-80 inguru jasotzen du. El Salvadorren bizi den egoera latz baten bi datu baino ez dira.

Behar asko ditu bertako biztanleriak eta laguntza horretan hondar ale bat jarri nahi du Jaikik.

Arropa, jostailuak, eta eskola materiala bidali nahi dute El Salvadorrera. Batez ere eskola materialaren bilketa azpimarratzen dute. "Haurrek eskola utzi eta lanean jarri behar izaten dute eta", adierazi dute Jaikiko kideek.

Laguntza hori jasoko dutenei kanpaina baliagarria izatea nahi dute. "Beharra duten komunitate bateko kideei lagundu nahi diegu", adierazi dute Jaikiko kideek.

Nazioarteko laguntza iristen den lekuetan proiektu ezberdinak garatu dira, baina helarazten ez den tokietan gabeziak handiak dira.

Bidalketa bideratzeko El Salvadorgo euskaldun batzuekin edota Askapena bezalako erakundeekin harremanetan jarri dira.

Bilketa lekuak

Datorren uztailaren 10era arte, bi gunetan utz daiteke, El Salvadorrera bidaltzeko materiala; ikasturtea amaitu arren, irekita izango den Udarregi ikasto-



HAURRAK GERRARAKO NOLA BAHITZEN DITUZTEN AZALTZEN DU "Voces inocentes" PELIKULAK, EKAINAREN 28AN SUTEGIN IKUS AHAL IZANGO DUGUNA.

lako erdiko aretoan eta NOAUA!ko egoitzan, bulego orduetan. Goizez, 9:00-14:00 artean eta arratsalde, 16:00-19.00 artean.

Kontu korronte bat ere zabaldu dute Euskadiko Kutxan, bidalketa diruz laguntzeko: 3035 0140 3 9 1400024331 zenbakia.

Aipatutako materiala, Jaikik kanpaina honekin lotuta, Sutegin antolatu dituen bi ekitaldietara hurbilduta uzteko aukera izango da. Hain zuzen, kanpainaren nondik norakoen berri ekainaren 22ko hitzaldian eskainiko dute. Nikaraguan egon den Jaikiko kide batek bertan bizitako esperientzia azalduko du. Horrekin batera, Ertamerikaz oro har, eta El Salvador modu zehatzagoan hobeto eza-gutzeko aukera izango da.

Baita bertan bizitako Gerra Zibila ere. Baina haurren ikuspegitik azaldua. Hilaren 28an eskainiko den "Voces inocentes" filmean, haurrak gerrarako nola bahitzen dituzten edota gerrak senideen artean eragindako zatiketa eta txirotasuna erakusten ditu. "Oso gogorra baina erreala", adierazi dute Jaikiko kideek.

El Salvadorren alde

EKAINAK 22 OSTIRALA

20:00 Hitzaldia eta luntxa Sutegin.

EKAINAK 28, OSTEGUNA

20:00 "Voces inocentes" filma Sutegin.

ARITZ GORRITI

**MIKEL
IZAGIRRE**
ELEKTRIZITATEA
943 365 095
609 068 111
GOIZ ARGI ETXEA, 37, KALEZAR

ERRAZKIN
Igeltseritza S.L.
Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679
K./ Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466
pintxoak
ogitaratekoak
piater konbinatuak
TABERNA

Osatu da legealdi berriko udalbatza

Pasa den larunbatean hartu zuen alkate izateko ardura Xabier Mikel Errekondok. EAE-ANVko sei zinegotzien eta Aralarreko bi zinegotzien babesa jaso zuen. Udaletxeko pleno aretoa jendez gainezka izan zen eta ofizialki alkate izendatu zutenean txalo zaparrada beroa jaso zuen.

Udalbatza izendatzeko, lehen lehenik adineko mahaia osatu behar zen. Anttoni Bengoetxea zinegotzi zaharrenak eta Ainara Uribe zinegotzi gazteenak (biak EAE-ANVkoak) osatu zuten adineko mahaia.

Mahaia osatuta, Luismari Ormaetxeak, orain arte alkate izan denak, hitza hartu zuen: "Nire agintaldia orain bukatzen da, beraz, agintearen bara eta giltzak ematen dizkiot adineko mahaiko presidenteari".

Legeari jarraituz, Espainiako Konstituzioa zin egin behar zela eskatu zuen Amaya Goyaran PSE-EEko kideak.

EAE-ANV eta Aralarreko kideek indarrean dagoen legeak behartuta zin egin zuten. EAKo hiru zinegotziek, aldiz, "legeak aginduta promes" egin zuten. "Legeak aginduta" zin egin zuen ere EAJ-PNVko zinegotziak, Iñaki Illarramendik.

Segidan hasi zen alkatea aukeratzeko prozedura. Alkategai bezala aurkeztu ziren Amaya Goyaran (PSE-EE), Luismari Ormaetxea (EA) eta Xabier Mikel Errekondo (EAE-ANV).

Bozketan, Xabier Mikel Errekondo izan zen bozkatuena, gehiengo osoz. Bere alderdiaren babesa ez ezik, Aralarren botoak ere jaso baitzituen Xabier Mikel Errekondok. EAKo hiru zinegotziek Luismari Ormaetxearen aldeko botoa eman zuten. Amaya Goyaranek bere buruari eman zion botoa eta EAJ-PNVko kideak, aldiz, boto zuria eman zuten.

Idazkariak Xabier Mikel Errekondo



ALKATE IZENDAPENA BOZKATZEKO UNEA IRITSI ZENEAN, EAE-ANV ETA ARALARREKOEN BOTOAK JASO ZITUEN XABIER MIKEL ERREKONDOK.

alkate izendatu zuenean, txalo zaparrada beroa jaso zuen EAE-ANVko kideak. Baita EA eta Aralarreko zinegotzien txaloak ere.

Xabier Mikel Errekondok hitza hartu zuen eta duela lau urteko egoera ekarri zuen gogora: "duela lau urte ez zen herri bozketa behar bezala errespetatu. UHLk lortu zituen bozka gehienak. Jokabide maltzur baten ondorioz, bizkar eman zitzaien eta horregatik UHLkoei aukera eman nahi nieke hitz batzuk esateko eta euren eskutik alkatetza hartzeko".

Txaloen artean, Arantxa Manterola UHLko kidea alkatearen eserlekuan eseri zen. Duela lau urte, "estatu espainiarrak indarrean jarritako Alderdien Legea baliatuta, 1.200 usurbildarrek egindako aukera eta hautatutako ordezkariak baztertuak izan ginen", adierazi zuen Arantxa Manterolak. Orain, berriz ere, Ezker Abertzalea alde batera utzi nahi izan dela esanez jarraitu zuen: "Usurbilen bertan ez zaigu era normalizatu batean aurkeztu utzi. Hemen bertan, era ilegítimoan, milaka herritarrok adierazitako borondatea ez da errespetatu. Eta beren eskubide

politikoei muzin eginda, berriro ere ez dagokion ordezkartza usurpatuko due-nik bada. Zuregatik diot hori Luismari. Batzar Nagusietako eserlekua horrenbeste arbuizaten omen duzuen Alderdiaren Legeari esker eskuratuko omen duzue. Lau urteotan alkatetzarekin egin duzun bezalaxe". Jokaera horretan EA eta EAJ-PNVkoen ardura nabarmendu zuen.

Legealdi berrian, ezkerreko abertzaleen ideiak ordezkatuak izatea lortu dela adierazi zuen Arantxa Manterola UHLko kideak: "Talde berriak lan asko du aurrean. Baina seguru gaude ahalegin guztiak egingo dituela Usurbilen eta usurbildarren beharrei erantzuteko. Ahalegin horretan zuekin izango gaituzue. Herrigintzatik ere, denok amesten dugun Euskal Herri aske eta justuagoa eraikitzeke. Eta beste batzuk ahaztu badute ere, udaletxea, herriko etxea, herritar guztion etxea dela frogatzeko. Animo bada eta ekin lanari" esanez amaitu zuen bere hitzaldia, bertaratu zirenen txalo artean.

IMANOL UBEDA

**Zuen
publizitatea
hemen**

☎ 943 360 321
publizitatea@noaua.com

JOSETXO IKATZETA

Iturgintza

TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

Heapaindegia eta Solarium-a

**Ioli
Lizarralde**

Estetika Zentroa Merche Casaresen eskutik.

Zubiaurrenea, 5B ☎ 943 361 971

Xabier Mikel Errekondo, alkate berria

“Herriari hitza eman behar zaio”

Behin alkate izendatu eta hitza hartu zuenean, Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoa izan zuen lehen hizpidea Xabier Mikel Errekondok: “gatazkari konponbide demokratiko bat emateko Ezker Abertzalea beti prest azaldu dela” adierazi zuen. Lurraldetasunaren defentsa eta erabakitze eskubidearen errespetua aipatu zituen gako nagusizat eta “euskal herritar guztion eskubideak errespetatzeko bidean, Usurbilgo herrian ere urratsak ematen saiatuko gara eta baita indarrak metatzen jarraitu ere. Usurbildik Euskal Herria eraiki eta Euskal Herritik Usurbil. Ezkerretik beti ere”.



XABIER MIKEL ERREKONDOK HITZA EMAN ZIEN DUELA LAU URTE BALIOGABETU ZUTEN UHL HERRI PLATAFORMAKO KIDEEI.

Herritarren kezka eta beharrei erantzunez lan egingo duela adierazi zuen: “Aldaketa eskatu du herriak. Herriari hitza eman behar zaio eta partehartzea bermatu behar da. Egiturak sortu eta batzordeak edo direnak direla, herritarren ekarpenak jaso eta ekarpen horiei erantzun egin behar dio udalak. Hausnarketa eginez eta arrazoituz. Bestela alperrikakoak dira egiturak. Herriak sentitu behar du erantzun egiten diola udalak”. Zentzu horretan, beraz, partehartzea sustatzea izango da jarraituko den ildo nagusia.

Gainontzeko alderdiekin hizketan aritu direla eta herriaren alde egin nahi duen guztiari aukera emango zaiola adierazi zuen: “benetan lan egin nahi duenarentzat, beti izango da tokia. Era berean, herriari gauza bera esan nahi diogu. Bai banakakoak zein talde eragiletakoak izan, ekarpenak egiteko aukera izango da”.

Hainbat konpromiso ere hartu zituen alkate bezala jendaurrean egin zuen lehen hitzaldian: “Herri galdeketak planteatuko ditugu. Erraustegiaren gaia hor dago”.

Alternatibak badirela eta horiek bultzatuko dituztela eman zuen aditzera alkate berriak. Kartzela eta koartelaren proiektuak ere aipatu zituen. Errauste plantaren eremu berdintsuan joango liratekenak.

XABIER MIKEL ERREKONDO

“Auditoria bat egin nahi dugu. Udala zein egoeratan dagoen jakin nahi dugu”

Soldatak ere errebisatuko dituztela esan zuen Xabier Mikel Errekondok: “argiak eta gardenak izango gara. Era berean, auditoria bat egin nahi dugu. Jakin nahi dugu egoera ekonomikoa nola dagoen udalean eta zein egoeratan hartzen dugun udala”.

Bildutakoei eskerrak emanez eta “Gora Usurbil eta Gora Euskal Herria askatuta” oihukatuz amaitu zuen Xabier Mikelek Errekondok bere hitzaldia.

Luismari Ormaetxea, EA “Zorionak eta zorte on”

Udalbatza amaieran, Luismari Ormaetxea hala zuzendu zitzaion alkate berriari: “lau hitz: zorionak eta zorte on”. Entzule batek, “lapurreta gehiagorik ez!” oihukatu zuen eta Xabier Mikel Errekondok honela erantzun zion Luismari Ormaetxeari: “Pentsatzen diat ikasgai bat jasoko huala”.

Segidan, ikusleen artean zen Manu Aranburu herritarrak hartu zuen hitza. Siziliatik (Italia) ekarritako landarea oparitu zion alkateari. EAE-ANVko kideei, Lontxo Zubiria Aralarreko kideari eta PSE-EEko Amaya Goyarani arrosa bana eman zien. “Luismari Ormaetxearentzat *Prestige*-eko benetako rastriloa” ekarri zuen Manu Aranburuk. Artean urduri zela, erre egin zuten etxe baten inguruko aipamenak egin zituen eta lau urte hauek penagarriak izan direla esanez ospa egin zuen udalbatza aretotik.

Kalkos kopisteria
FOTOKOPIAK
zuri-beltza · koloretan
BANDERA
SALMENTA
PINTORE KALEA 7 · LASARTE-ORIA
943 376 424 · 943 376 155 (FAX) kalkos@copisteriakalkos.com

Kima
MASAJE LEKUA
Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
Kale nagusia, 44- behe
LASARTE-ORIA
TEL. 36 61 97

Udan, gaztetxoek aspertzeko tarterik ez

Iritsi da urteko oporrallirik luzee-
na ikasleentzat. Bi hilabete pasa-
txotan inoiz baino tarte libre
gehiago izango dute. Horregatik, haiei
zuzendutako aisialdi eskaintza ere zaba-
lagoa da. Ondo pasatzeko aitzakia
